



Aurkezten du:

Sevillako superbizargina



Gida didaktikoa

Ma. Antonia Guardiet

2003ko azaroa



Gran Teatre del Liceu
Servei Educatiu

AURKIBIDEA

1.	Bizargin baten istorioa.....	3
	1.1. Pertsonaiak.....	4
	1.2. Entzuteko musika-pasarteak.....	5
2.	Ezagut dezagun Rossini.....	8
3.	Argumentu laburtua.....	10
4.	Bizargin baten komikia.....	12
5.	Opera bateko elkarrizketak antzokitxo batean	
	5.1. 1. elkarrizketa (Kondea, Figaro eta Rosina).....	14
	5.2. 2. elkarrizketa (Bartolo, Basilio, Rosina eta Figaro).....	15
	5.3. 3. elkarrizketa (Rosina, Bartolo eta Almaviva).....	16
	5.4. 4. elkarrizketa (Figaro, Bartolo, Kondea, Rosina eta Basilio).....	17
6.	Ordenatu itzazu deiak.....	18
7.	Nori dagokio elkarrizketa bakoitza?.....	18
8.	Rosinak amodiozko gutunak idazten ditu.....	20
9.	Lau ahotsetarako kontzertantea.....	21
10.	Doinuak marraztu eta ezagutu egiten ditut.....	22
11.	Orff estiloko obertura jotzen dugu.....	23
12.	"Kristala bezalako ahotsa".....	23
13.	Bizargin baten zopa.....	25
14.	Miquel Descloten testuaren aberastasuna.....	26

IKUSKIZUN AURREKO ETA OSTEKO OSAGAI DIDAKTIKOAK

Aurkezten ditugun proposamen didaktikoen helburua da irakasleriari laguntzea *Sevillako Superbizargina* opera emanaldira joan aurretiko eta osteko gelako lanketa prestatzen. Atazek hezkuntza xede zabala dute zuzentzen zaizkien adinei dagokienez. Irakasleriak zailtasun maila egokia hautatuko du atazak zuzentzen zaizkien taldeen arabera. Ataza tauletan sartu ditugu horiek burutu daitezkeen hezkuntza mailari buruzko orientazio gakoak.

Beste arlo batzuekiko lotura duten ataza ugari proposatu nahi izan ditugu, horrela irakasleen arteko hartu-emana ahalbidetzeko eta ikasleriak gai bera diziplinarteko hezkuntza ikuspegi zabalagoaz lan dezan.

Adibide gisa, ikuskizunaren aurretik edo ostean egin daitezkeen atazen proposamena erakusten dugu.

Ataza	Hezkuntza maila	Noiz
1.- Bizargin baten istorioa	Maila guztiak	Ikuskizunaren aurretik
2.- Ezagut dezagun Rossini	Maila guztiak	Ikuskizunaren aurretik
3.- Opera bateko aleluia	Erdi zikloa	Ikuskizunaren aurretik
4.- Bizargin baten komikia	Goi zikloa	Ikuskizunaren aurretik
5.- Opera bateko elkarrizketak antzokitxo batean	Goi zikloa	Ikuskizunaren ostean
6.- Ordenatu itzazu deiak	Hastapen eta erdi zikloa	Ikuskizunaren ostean
7.- Nori dagokio elkarrizketa bakoitza?	Erdi eta goi zikloa	Ikuskizunaren ostean
8.- Rosinak bezala gutunak idazten ditut	Maila guztiak	Ikuskizunaren ostean
9.- Lau ahotsetarako kontzertantea	Erdi eta goi zikloa	Ikuskizunaren ostean
10.- Doinuak marraztu eta ezagutu egiten ditut	Hastapen eta erdi-zikloa	Ikuskizunaren ostean
11.- Orff estiloko obertura jotzen dugu	Erdi eta goi zikloa	Ikuskizunaren ostean
12.- "Kristala bezalako ahotsa" (Rosinaren aria)	Maila guztiak	Ikuskizunaren aurretik edota ostean
13.- Bizargin baten zopa	Hastapen eta erdi zikloa	Ikuskizunaren ostean
14.- Miquel Descloten testuaren aberastasuna	Goi zikloa eta DBH	Ikuskizun aurretik edota ostean

1. Bizargin baten istorioa

Sevillako Superbizargina opera komikoa korapiloz josita dago argumentuari dagokionez, ikusleen begi eta belarrietarako dibertigarria eta, aldi berean, konplikatua bihurtzen dutenak. Merezki du ikuskizunera joan aurretik kontatzen duen istorioaren azalpen zehatza ematea, ondo prestatuta joategatik.

Eszena edukiaren ezkutuko kontuak ipuin bat balitz bezala argitzea proposatzen dizuegu, helburu bikoitza duten osagai soilen laguntza baliatuta: neska-mutilen arreta bereganatzea eta istorioa entzutea.

Kartoizko kutxa batean ezkutatuta izan ditzakezuen pertsonaia guztiak prestatzen dituzuen bitartean ([Ataza didaktikoak: Pertsonaiak](#)), jarri operako obertura eta hasi entzuteko giro egokia sortzen. Aurkeztu egilea, **Rossini**, ([Ataza didaktikoak: Ezagut dezagun Rossini](#)) eta ikasleria itxuraz kokatu antzeztea proposatzen dizuegun obrako pertsonaiak bizi ziren leku eta denbora testuinguruan.

Eszena materiala	Pertsonaiak
Egurrezko koilara	Rosina
Egurrezko sardexka	Almaviva / Lindoro
Egurrezko sardexka zapi urdinarekin	Almaviva soldadu mozkorra
Egurrezko sardexka zapi gorriarekin	Almaviva musika-maisua
Motrailu-kirtena	Bartolo
Egurrezko xukadera bildutako partitura zati batekin	Basilio
Bitsadera	Figaro
Kondeak bizarginari ematen dizkion txanponak; Rosinak idatzi duen gutuna	

Sukaldeko tresnen hautaketa Rossiniaren nortasunari erreparatuta justifikatzen da – aparteko jakiez gozatzeko zuen joera ezaguna dela-eta-; hala nola ipuina kontatzean mugimenduen sinpletasuna eta erraztasuna ahalbidetzeari begira.

Gomendagarria da bi lagunek kontatzea istorioa, elkarrizketak hitz eginez eta musika-pasarte ospetsuenak abestuz ([Ataza didaktikoak: Musika-pasarteak](#)), ikasleek opera ezagutu dezaten lortzeko. Argumentuaren laburpenak bat-bateko kontaktetan lagunduko dizue. ([Ataza didaktikoak: Argumentu laburtua](#))

Istorioaren antzezpena bukatuta, galdetu:

- Gustatu zaizue istorioa?
- Pertsonaia/sukaldeko tresna bakoitzaren izena eta bereizgarriak.
- Zergatik uste duzue **Sevillako Superbizargina** sukaldeko tresnak erabiliz azaldu dizuegula?

1.1. Pertsonaiak

Bartolo Doktorea

Bartolo doktorea sendagile entzutetsua da. Etxe handi batean bizi da, Sevillako erdiguneko enparantza batean kokatuta. Agure mesfidati, xuhur eta kexatia da, eta Rosina gaztea, neskatila umezurtz eta oso ederra, hezteko ardura eman diote.

Rosina zorrozki hezi eta babesteaz gain, Bartolo harekin maitemintzen da. Ezkontzea erabaki du, maitasunagatik ez bada, indarra erabilia. Rosina beste norbaitekin maiteminduko den beldur, etxean dauka giltzapetuta.

Rosina

Rosina neskatila umezurtz eta polita da, Bartolo Doktorearen etxean gogoz kontra bizi behar duena, lau parea artean bizirik lurperatuta. Sentibera, otzana, adeitsua eta samurra da, era berean azkarra eta zuhurra izan badaiteke ere. Badaki aitzakia azkarrak eta egoera berriak bat-batekoan asmatzen, gehien nahi duena lortzeko: Lindoro gaztearen maitasuna.

Rosinak ondare ekonomiko handia jaso du oinordetzan, eta Bartolo Doktoreak hori baliatu nahi du bere mesederako.

Lindororekin, egunsentian balkoipean abesten dion gazte erakargarriarekin, biziki maiteminduta dago. Rosinak ez daki "*Lindoro*", benetan, mozorrotutako Almaviva Kondea dela.

Almaviva Kondea / «*Lindoro*»

Gorteko jaun gorenatariko bat da. Rosina ikusi zuen lehen aldiz harekin liluratuta geratu eta maitemindu egin zen.

Almaviva Kondea lerdena da, eta ahal duen guztia egingo du neskatila bereganatzeko. Abesti ederrak kantatzen ditu Rosinaren balkoipean. Haren etxean sartu ahal izateko, izena eta nortasuna aldatuko ditu (soldadu mozkor bat eta musika-maisu bat izango da). Bere helburuak lortzea ez da erraza izango, Bartolo zelatari baitabil eta Rosina giltzapetuta baitauka.

Almaviva mozorrotuta ibiltzen da beti. Ez du inork ezagutu dezan nahi. Ziur egon nahi du Rosinak ez duela maiteko bere noblezia titulu eta lurreko aberastasunengatik, bere ezaugarriengatik baizik.

Kondea Figaro bizarginarekin jarriko da harremanetan, hiriko kontakatilurik handienarekin, Rosinaren etxean sartu ahal izateko.

Figaro

Sevillako bizarginik ospetsuena izateaz gain, besteak beste, sendagilea, albaitaria, botikaria eta botanikoa da, hots, oso izaera ezberdineko lanbide eta jarduerak burutzen ditu. Benetako "factotuma". Umiltasuna ez da, hain zuzen, bere ezaugarriak bereizgarriena.

Gitarra bat darama soinean, lepotik zintzilik. Naturaltasun osoz abesten du. Lana gorroto du eta, batik bat, ondo pasatu nahi du. Enkargu mota oro onartzen ditu: beste

senar bat topatzeko alargunak artatzea, neskatilak limurtzeko gazteak biltzea,... Ez du ezer egiten sari ekonomikorik eman ezean.

Almaviva Kondea, Rosinarekin maiteminduta, Figarorekin jarriko da harremanetan, eta hark erraz konbentzituko du, batez ere honek jasoko duen urrezko txanpon mordoa kontuan hartu ondoren.

On Basilio

On Basilio musika-irakaslea, azkarra, trebea eta zuhurra da. Rosina gaztearen irakasle partikularra da.

On Basiliok Almaviva Kondea hirian dagoela eta Rosinarekin bizki maiteminduta dagoela ohartarazten dio Bartolo Jaunari. Musikariak gomendatzen dio tutoreari Kondearen irudi publikoa kaltetuko duen istorio maltzur eta iraingarria asmatu dezan, iritzi publikoaren aurrean Kondea eskrupulurik gabeko doilor gisa agerrarazteko. Hain gezur beltza ez da burutuko.

Ahal bezainbeste ahaleginduko da Bartolo agurearen eta Rosinaren arteko ezkontza ahalbidetuko duten notario-dokumentuak lortzen. On Basilio erostea erraza da, urrezko txanponetan ordaindutako sari handiak promestuz gero.

Izaera hipokondriakoa du: bere burua gaixotzat jotzen du, esaterako, Figarok, Almavivak eta Rosinak, bigarren ekitaldiaren bukaeran, ustekabean agertzen ikusten dutenean eta itxura txarra duela adierazten diotenean, sukar eskarlatinoak jota balego bezala.

1.2. Entzuteko musika-pasarteak

Obertura

Obertura opera-emanaldiari hasiera ematen dion musika-pasartea da. Antzina **Toccata** edota **Sinfonia** deitzen zizaion. Egiturari erreparatuta funtsezko bi eredu aurki ditzakegu: **obertura frantsesa** (hiru atal ditu: motela - azkarra - motela) eta **obertura italiarra** (azkarra - motela - azkarra). Historian zehar, obertura eta antzezpenaren arteko harremana gero eta estuagoa bilakatu da, musikak operan gertatuko den istorioa eta horren klimaxa aurreratzea lortzeraino.

***Il barbiere di Sivigliako* oberturan** G. Rossiniren doinu itsaskorrek idazteko sormen-trebetasuna nabarmentzen dugu. Obertura honek zazpi minutu inguru irauten du. Orkestrak erritmoz beteriko pasarteak doinu lasaiagoekin tartekatzen ditu. Ziur lehen aldiz entzun ostean, bertako abesti alaiak nekez joango zaizkigula burutik. ([Errefortzurako materialak / Obeturaren partitura](#))

Bitxia da hain obertura ospetsua jatorrian ez zela "*Il barbiere di Siviglia*" operarako idatzia izan. Rossinik aurretik idatzi eta beste opera baterako ("*Elisabetta regina d'Inghilterra*") zen obertura baliatu zuen. Horrek Rossinik obeturako aspektu dramatikoekiko zuen nolabaiteko axolagabetasuna erakusten du.

Albert Romanik *Sevillako Superbizargina* lanerako idatzitako orkestra-simplifikazioan obeturako bi gai famatuak erakusten dira labur. Hiru instrumentuk jotzen dute: pianoak, zeharkako txirulak eta kontrabaxuak.

Figaroren aria

Aria ahots bakarrekoa da, nolabaiteko hedadura du eta pertsonaia batek bere sentimendu eta usteak adierazteko baliatzen du. Aria bitartean ez dago gertakizunik. Izaerari erreparatuta mota hauetarikoa izan daiteke: motela eta lirikoa (*cantabile*), apaingarriz josia (*di bravura*) eta musika-akonpainamendu oso landuaz lagundua (*concertata*). Ezagunena –bere egituraren soiltasun eta argitasunagatik baliabide pedagogiko gisa erabilia- **aria de capo** deritzona da (A – B – A).

I. Ekitaldia, I. Koadroa: Figaro egunsentian agertzen da, hiria oraindik lo dagoela, doinu bat ozenki inprobisatuz, auzokoak bere “*la-la-la-la...*” kurrinkariekin esnatzeko beldurrik gabe.

Bizarginaren doinu ezaguna azkarra da eta indar handia dauka; musikak bere buruaz ziur dagoen pertsonaia bat deskribatzen digu, apur bat harroputza ere badena. (*A, zelako bizitza, bai, a zer gozamina kalitatezko bizargin batentzat. Zorionekoa, egia da... denek deitu eta maite naute, damek eta hurrek, mutikoen eta atsoek...*).

Aria honen bidez Figarok bere lanbide baliotsu eta sormenezkoak ez duela ordutegirik azaltzen du: “*Denerako prest, gau eta egun, jada eta oraindik, hemen eta han. Orraziak, artaziak, orriak, eskuilak eskura daude apaletan. Eta aparteko orduetan ileak alde batera utzita beste eginbehar batzuek dibertitzen naute!...*”; era berean, ozen-ozenki bere bizimodu lanpetua erakusten digu: “*Figaro, hona! Figaro, hara! Figaro, zatoz, Figaro, zoaz! Oso bizkorra naiz, tximista bezain azkarra, hiriko factotuma naiz*”.

Figarok **baritono**-ahotsa du, gizonezko tarteko ahotsa, tenor baten tesituraren azpitik eta baxuarena baino altuagoa. Hala ere, bizargina nota altuagoetaraino igotzen da harropuzkerian aritzeko asmoz, argi eta garbi utzi nahi digu –batik bat bere ariako bukaerako zatian- hiriko kontakatila dela. ([Errefortzutako materialak / Partitura: Figaroren aria](#))

Almaviva Kondearen canzonea

I. Ekitaldia, I. Koadroa: Doinu eder hau horrela dei genezake: **serenata**. Termino italiar honek “*gaura*” esan nahi du. Gauez abesten den abestia da, kanpoan, maite edo miresten den pertsona bati eskainia. Musika ezta eta lasaia da; sarri desio zen pertsona bereganatzeko maitasunezko abesti bezala erabiltzen zen.

Almaviva Kondeak goibel eta geldo samarra den doinu batekin erakarri nahi du Rosina gaztea. Konde jaun handi baten ziurtasun eza, maiteari bere izena ere esatera ausartzen ez delako, tonu txikiagoko doinu baten bidez transmititzen da, aria baten ahozko hedadura eta zailtasunik ez duena.

Almaviva Kondea **tenorra** da, gizonezko tesituren arteko altuena, eta horrek adierazten digu ahotsa pertsonaia gazte bati dagokiola.

Orkestrarako bertsio osoan, Almaviva Kondearen ahotsari gitarra batek laguntzen dio. *Sevillako Superbizargina* operan entzuten den egokitzapenean orkestra-akonpainamenduak *pizzicatoa* imitatzen du, gitarra-akordeak balira bezala. ([Errefortzurako materialak / Partitura: Lindororen serenata](#))

Rosinaren aria

I. Ekitaldia, II. Koadroa: Rosina gazte ausarta da, eta ez du onartzen Bartolo Doktore zaharrarekin ezkontzeko patua. Guri aurkezteko abesten duen ariak, "*Kristala bezalako ahotsa*" (*Una voce poco fa*), bere buruaz ziur dagoen eta ausarta den pertsona bat aurkezten digu. Egiazta dezagun "*Lindo-o-o-o-o-ro nirea izango da, zin egin nuen, lortu egingo dut*" esatean tonu labur eta azkarrak entzunda.

Rossiniren partiturak mezzo-sopranoaren ahotsa esleitu zion Rosinaren paperari. Entzungo dugun bertsiio egokituak **soprano** ahotsa ematen dio. Sopranoa emakumezko ahotsik altuena da. Hitza "*sopra*" berba italiarretik dator, eta "*gaineratik*" esan nahi du. Rosinaren ahotsak, doinuak apaingarri distiratsuz betetzea lortzen du, bizi eta distiratsu bihurtuta.

Aria hau Kondearen serenataren bestelakoa da: Bertan ez dugu malenkonia edo tristuraren adierazpenik aurkitzen, asperdura eta erabakitasuna baizik. Rosina tonu altuenetatik ("*Baina nire ahulunea ukituz gero*") nota baxuenetara doazen figura azkarretara ("*azpisugea izango naiz eta mila amarru erabiliko ditut...*") doa. Pasarte baxuago hauetan, Rosinak bere nortasuneko aspekturik mehatxagarrienak adierazten dizkigu.

Mezzo-sopranoa emakumezko tarteko ahotsa da. ([Errefortzurako materialak /Partitura: Rosinaren aria](#)).

On Basilioren aria

I. Ekitaldia, II. Koadroa: On Basilio agertu bezain laster txutxu-mutxuka hasten da. Bartolo Jaunari Almaviva iritsi dela ohartarazi eta hura irainduko duen istorio maltzurra asmatzeko aukera iradokitzen dio. "**Gezur beltza**" aria lau notekin hasten da, ia hitz eginda, pixkanaka azkartasun makurraz kutsatuko direnak.

Orkestrak murmurioa deskribatzen du On Basiliok Kondearen inguruko zurrumurruek zabaldu nahi dituenean; biolinek bereziki nabarmentzen dute. Musika gero eta biziagoa bilakatzen da, zurrumurruek hedatu ahala, gero eta indar handiagoa lortu eta *crescendo* nabarmenean amaitu arte: "*Eta bat-batean, azkenean lehertu egiten da, hedatu eta areagotu eta kanoi baten danba! bezalako burrunba sortzen du*". Orkestraren musikak On Basilioren bereizgarri diren makurtasun zitela eta mendekugrina adierazten ditu. Bere ahotsa **baxuarena** da, gizona baxuena. Indarra eta aginpidea adierazten dituen tesiturari dagokio. Adineko pertsonaiak ezagutarazteko baliatzen da. ([Errefortzurako materialak / Partitura: On Basilioren "Gezur Beltza" aria](#)).

Bartolo Doktorearen aria

I. Ekitaldia, II. Koadroa: Bartolo Doktorea, On Basilio bezala, **baxua** da. Rossinik ahots bera ematen die adineko bi pertsonaiei. "*Il barbiere di Siviglia*" opera komikoa da. Bere erreperitorioan ohikoa da testua oso abiadura azkarrean abestera behartzea, bereziki baxu-tesiturei dagokienez, dibertigarriak eta barregarriak izan daitezen, "*basso bufo*" legez ezagunak diren pertsonaiak dira.

"*Ni bezalako doktore jatorrari...?*" arian, Bartolo Doktoreak frogatzen digu izugarri haserre eta suminduta ager daitekeela, Rosinak engainatu egin duen sententzia izan bezain laster.

Bere ariaren azken zatian, "*Andereño, hurrengo batean etxetik joan beharra dudanean jakingo dut atezainari jendarme-agindua ematen. Aizu, ez dute balio kateme hilaren*

jarrera eta imintzioek. Jainkoaren izenean! Ate horretatik ez da igaroko ezta aire ziztrina ere" abestean, irmoagoa izatera irits daitekeela hauteman dezakegu. Orkestraren martxa-erritmo biziak –Albert Romanik egindako instrumentu-egokitzapenean ere nabarmena- berretsi egiten digu doktorea adorez eta indarrez beteta dagoela. ([Errefortzurako materialak / Partitura: Bartolo Doktorearen aria](#)).

Boskotea

Boskote terminoak bost pertsona aldi berean abesten edo instrumentuak jotzen ari direla esan nahi du.

II. Ekitaldia: Gertakizuna Linodoro gaztea etxean sartzen den unean garatzen da, Bartolo Doktoreari sinestarazita On Basilio musika-maisu gaixoaren ordezkoa dena, horrela bere Rosina maiteari eskolak eman ahal izateko. Bikote gazteak besarkada eta muxu artean abesten du, euren ihesaldia prestatzen duten bitartean. Bartolo zaharrak uzten dio Figaro bizargin kontakatiluari bizarra egin diezaion.

Boskotea agertokian benetako musika irakaslea agertzen denean hasten da. On Basilio txundituta geratzen da egiten dioten ezohiko harrera ikusita. Musika, gertakizunarekin gertatzen den bezala, gero eta biziagoa bilakatzen da, Figarok On Basiliori oso gaixo dagoela sinestarazita pultsua hartzen dion unera arte.

On Basilio, ordea, ez da gaixo sentitzen eta iruzur egin nahi diotela sumatzen du. Horrexegatik, zera abesten du bere golkorako: "*Poltsa bat... Sartu ohean... Hauek guztiak bat eginda daude*", etxetik desager dadin Kondearengandik jaso duen diruari aipamena eginda.

Bost protagonistek, euren kezka agertzen duten musika-esaldiak abesten dituzte. Honela:

- Rosina: "*Egia da, zoaz ohera!*"
- Kondea: "*Nik emango dizut botika (txanponak) ¡Tira, zoaz sendatzera!*"
- Bartolo: "*Azkar, zoaz atsedean hartzera* “.
- Basilio: "*Aizu, ez naiz gorra! Beno, goazen.*"
- Figaro: "*Ai ama, hau beroa! Aspirina bat! Hau sukar eskarlatinoa da.*"

Bukaera

II. Ekitaldia, Bukaera: Festa erritmoak, Figarok ezarria eta martxa baten antzekoa, giroa baldintzatzen du. Giro gartsuak gero eta gehiago kutsatzen ditu pertsonaiak eta ikusleak. ([Errefortzurako materialak / Partitura: Finale II](#)).

2. Ezagut dezagun Rossini

Gioacchino Rossini 1792ko otsailaren 29an jaio zen —urte bisustua!— Italiako Pesaro hirian. Bertako bandako tronpeta-jole baten eta partiturak irakurtzen ez zekienez bere opera-paperak buruz ikasi behar izaten zituen bigarren mailako opera-abeslari baten seme bakarra izan zen. Gurasoek musikan zuten prestakuntza eskasak motibatu egin zituen semeari musika-hezkuntza egokia emateko.

Ikasle gisa, Giocchianok oso gaztetatik erakutsi zituen musikarako trebetasun nabarmenak, *Demetrio e Polibio* bere lehen operak - amaren eskutik opera asko ikusi ahal izan zituen - erakusten duen bezala, 14 urte besterik ez zuenean idatzita. Urte hartan bertan, 1806an, Boloniako Akademia Filarmonikoan onartu zuten, eta bertan musika ikasi eta Mozart eta Haydnen obrak kontsultatu ahal izan zituen. Boloniako Akademia zen bi musikari alemaniarren partiturak aurkitu zitezkeen Italiako leku bakarra. Haien azterketak bere musika-hizkuntzako nozioak hobetzea ahalbidetu zion.

Rossinik orkestra hedatu zuen, haize-tresnei garrantzi handiagoa emanda, ordura arte orkestra italiarretan presentzia handirik ez baitzeukaten. Soinu potentzialtasun handiagoa eman zien musikan, tentsiotik baretasunera eta alderantziz joatea eragiten duten *crescendoak* eta *diminuendoak* sartuta, hots, publikoaren gustukoak diren aldaketak.

1810ean Veneziako opera-antzoki batek ekitaldi bakarreko opera bufo bat eskatu zion: ***La cambiale di matrimonio***. Oso arrakastatsua izan zen. 18 urterekin Rossinik bere ibilbide profesionalari ekin zion opera konpositore gisa.

Bere opera bufoek -komikoek- garaiko Europako konpositorerik ospetsuena bihurtu zuten. Ezagunenak eta antzeztuenak hauek dira: ***L'italiana in Algeri*** (*Italiarra Aljerian*)(1813), ***Il turco in Italia*** (*Turkiarra Italian*)(1814),), ***Il barbiere di Siviglia*** (*Sevillako bizargina*) (1816) eta ***La Cenerentola*** (*Errauskiñe*) (1817). Opera bufo horien eduki komikoa zela-eta publikoak irrikaz espero zituen. Opera nagusietako (Venezia, Milan, Napoli, Erroma, Viena, Paris,...) enpresariak etengabe eskatzen zizkieten modako konpositoreei denboraldiko programazioan estreinatzeko erreperitorio berriak.

Hogei bat urtetan zehar 39 opera konposatu zituen –batez beste opera bat eta erdi urteko-. Bere azken opera ***Gillemo Tell*** (1829) izan zen.

Rossinik Viena eta Londresera bidaiatu zuen eta bertan, bere ospea areagotzeaz gain, diru kopuru handia irabazi zuen kontzertuak zuzenduz eta musika-eskolak emanez. Passyn, Parisetik hurbil, jarri zen bizitzen. Musikagile lanetan 38 urterekin hartu zuen erretiroa. Harrezkero, bere buruaz arduratu zen: lasaitasuna eta jaki onak maite zituen. Horrela, merezitako ospearen saria jaso zuen. Adinekoa zela, larunbat gauetan musika-gaualdiak antolatzen zituen Passyn, bertan parte hartzen zuten musikari eta artista gazteen kalitateagatik ospetsu bilakatu zirenak. Rossinik pieza motzak konposatu ohi zituen, *Bi katuen duoa*, kasu.

76 urtera arte bizi izan zen, lausengatzen zuten mireslez inguratuta. Bere bizitzaren bigarren erdian zehar ez zuen konposizio nabarmenik sortu. Parisetik hurbil hil zen 1868ko azaroaren 13an. Rossiniren operak ahaztu egin ziren XX. mendeko 60ko hamarkadara arte, baina orduan berriz agertu ziren operako karteletan.

3. Argumentu laburtua

I. Koadroa

1.- Duela 300 urteko Sevillan aurkitzen gara. Almaviva Kondea Rosina deitzen den neskatila eder batekin maitemindu da. Zutik, haren balkoipean, serenata bat, maitasunezko abesti bat, abesten dio.

2.- Rosina ederra ez da balkoian agertzen. Bat-batean Figaro, hiriko bizargina, abesten agertzen da eta giroa nahasten du. Almaviva Kondeak, Figaro ezagutzen duenez, maiteminduta dagoela azaltzen dio...

3.- Bat-batean, Rosina gaztea balkoira atera eta Almaviva Kondeari gutun bat botatzea lortzen du; bertan, behin baino gehiagotan leihotik ikusi duela eta nor den jakiteko jakin-min handia duela azaltzen dio. Bartolo Doktore zahar eta jeloskorrak, neska giltzapetuta duen tutoreak, berehala sartzera behartzen du.

4.- Almavivak maitasuna balkoipean beste abesti bat abestuz erakutsiko du. Abestu eta gezurrezko izen bat hartu du, hemendik aurrera Lindoro deituko da. Ez du konde aberatsa dela esan nahi. Seguruenik Rosina berarekin maitemintzea nahi du, bere pertsonarekin, ez bere aberastasunarekin.

5.- Orduan Figarok ekintza plan bat proposatzen du: “*Soldaduz mozorrotu beharko zenuke. Gaur erregimentu bat ezarriko da. Ostatu-aginduarekin ate hau ireki egingo da*”.

II. Koadroa

6.- Rosina nazkatuta dago Bartolo Doktorearen etxean giltzapetuta sentitzeaz. Lindoro du buruan eta maitasunezko gutun bat idazten dio. Ez du doktore zaharrarekin ezkondu nahi. Figaro, Bartoloren bizargin pertsonala izateaz gain, Rosinaren ile-apaintzailea ere bada, eta etxera iristen da hura orrazteko eta maitasun berriaren bidea prestatzen hasteko.

7.- Bartolo Doktorea On Basiliorekin, musika-irakaslearekin, sartzten da. Honek Bartolo Doktoreari jakinarazten dio Almaviva Kondea hirira iritsi dela eta Rosinagatik ohiz kanpoko interesa erakusten duela.

8.- Jeloskortasunak doktorea sumintzen du, baina On Basilio zuhurrak konponbidea du: Almaviva Kondea doilorra eta traidorea delako zurrumurrua –gezur beltzabaltzea proposatzen du. Ziur daude horrela Rosinak iritzia aldatuko duela.

9.- Bartolo Doktoreak ez dauka argi gezurrezko zurrumuruaren sorkuntzan parte hartzea. Nahiago du ezkontza-kontratu bat prestatu eta Rosinarekin ahalik eta lasterren ezkondu. On Basiliori ezkontzeko behar diren notario-paperak prestatu ditzala eskatzen dio.

10.- Rosina biziki haserretzen da. Figaro, Bartolo Doktoreak eta On Basiliok prestatzen dutena entzunda, Rosinari beste bien planak azaltzen dizkio.

11.- Figarok poztu egiten du Rosina, Lindoro gaztea berarekin izugarri maiteminduta eta maitasunezko gutun baten zain dagoela adierazten dionean. Gazteak prest dauka Lindororentzako gutuna. Figarok berehala eramaten dio.

12.- Norbaitek atea jotzen du. Lindoro da, soldadu mozkorren papera antzezten. Zalaparta izugarria sortzen du, eta Doktoareari ez zaio gustatzen. Militarra den heinean, eskubidea dauka etxean egoteko bere milizia hirian egon bitartean.

13.- Rosinak soldadu mozkorra ezagutzen du, Lindoro maitea da.

14.- Bartolo haserretu egiten da. Pixkanaka, Bartolo Doktoarea eta soldadua borrokan hasten dira. On Basilio sartu eta Bartolori arrazoia ematen dio. Egoera nahaspila hutsa bihurtzen da. Lindorok ihes egin beste erremediorik ez du.

III. Koadroa

15.- Berriz jotzen dute atea. On Basilioaren nolabaiteko antza duen pertsonaia bitxi bat sartzen da. Alonso musika-irakasle jauna dela eta Rosinari eskolak ematera datorrela esaten du, On Basilio gaixo jarri baita.

16.- Jakina, Almaviva Kondea da, Rosina ikusi ahal izateko musika-irakasle mozorrotuta.

17.- Bartolo Doktoareari iruzur eginda, Rosina maiteminduaren bila joaten da eta honek berehala ezagutzen du Lindoro maitea, mozorrotuta badago ere. Rosina, hunkituta, plantak egiten saiatzen da.

18.- Doktoareari ez zaio gustatzen Rosinak irakasle ezezagun batengandik kantu-eskolak jaso behar izatea, baina etsi egiten du. Bere eserleku gustukoenean eserita gaztearen ahots zoragarria entzuten du. Bartolo agurea lo geratzen da.

19.- Bikoteak denbora baliotsua du elkarri begiratzeko eta abesteko. Ustekabean Figaro etortzen da Bartolori bizarra egitera.

20.- Mamua balitz bezala, On Basilio, benetako musika-irakaslea, agertzen da. Bi Basilio? Nabarmena da bat sobera dagoela. Denak txundituta geratzen dira.

21.- Figarok, Rosinak eta Almaviva Kondeak On Basilio botatzea lortzen dute, itxura kaskarra duela sinestarazita, -ezbairik gabe- oso gaixo dagoelako. Bost protagonistek batera abesten dute, iskanbila izugarria sortuta. On Basilio etxetik joatea eta ohean sartzea lortzen dute.

22.- Azkenean, jarraitu dezakete lan egiten: bizarra egiten, kantu-eskola ematen eta gaez neskatila askatzeko plana pentsatzen. Figarok begi batean erbatza duelako plantak egiten ditu. Bartolo zaharra konturatzen da kantu-eskola gero eta gehiago bilakatzen dela musuketa etengabea.

23.- Figaro bikoteak ihes egiteko plana ezkututzen saiatzen bada ere, Bartolo doktoarea ohartu egiten da iruzurraz. *“Nahikoa da lotsagabeok, zoazte kanpora edo zartako bat emanda utzaraziko dizuet etxea”*, oihukatzen du haserre eta suminduta, etxetik botatzen dituen bitartean.

24.- Garrasiak ozenegiak bilakatzen direnean, berriro sartzen da On Basilio, musika-irakaslea. Egiaren unea iritsi da. Rosinak Lindoro maite duela esaten die denei. Kondeak aitortzen du ez dela Lindoro, Almaviva baizik, Bartolo Doktoareak garaitutzat jotzen du bere burua; ez du bikotekide gazteek elkarri dioten maitasuna onartu beste erremediorik. Figarok gustura egiten du irribarre. Dena berak aurreikusi bezala bukatu da.

25.- Eta horrela bukatzen da istorioa. Ez pentsa horrelakoak ezin direla errepikatu. Zaude ziur egun badaudela maitemindu eta maitasun hori egia bihurtzeko borrokatzen duten pertsonak.

4. Bizargin baten komikia

3., 4. eta 5. atazak hertsiki lotuta daude hizkuntza eta plastika arloekin. Egin baino lehen beharrezkoa izango da Figaro bizarginaren istorioa ezagutzea –dela irakaslearen azalpenaren bidez, dela Lizeoko Antzoki Handiak ekoizturiko ikuskizunera joanda. Eskaintako argumentu laburtutik abiatuta, istorioaren komiki bat egitea proposatzen dizuegu. ([Ataza didaktikoak: Argumentu laburtua](#))

Hizkuntzarekiko lotura

Argumentua elkarrekin irakurri eta atera ditzakegun irudi eta elkarrizketen aberastasunari erreparatuko diogu. Istorioaren komiki bat egitea proposatuko dugu, beraz, testuko bi pasartetik behin marraztu ahal den gutxi gorabeherako bineta kopurua formulatzen saiatuko gara. Ikasle bikote bakoitzari argumentu murriztuko hogeita bost pasarteetatik bi emango dizkiogu.

Ataza honek emandako testua ulertzea, argumentuaren irudietan laburtzea eta (elkarrizketak) deiaren baitan idatziz adieraztea behar du. Ikasleriak kontuan izan behar du komiki batek hitz gutxi eta ikusmen eta adierazpen aberastasun handia duela.

Ikusmen eta plastika arloekiko lotura

Ikasle bikote bakoitzak argumentuaren bi pasarte ditu. Testu idatzia komiki bateko irudi bihurtzea proposatuko dugu. Gela osoari operan ikusiko dituzten pertsonaia berberen irudiak aurkeztuko dizkiogu. ([Errefortzurako materialak/figurinak](#)). Horrela, On Basilio agertzen den bakoitzean kapa, kapela beltza eta gerriko morea soinean dituela egingo du...

Lan bateratua amaituta, gomendagarria da erakusketa bat antolatzea, ikastetxeko beste ikasle batzuek ikus dezaten.

5. Opera bateko elkarrizketak antzokitxo batean

Ataza honetan ikasleek antzokitxo bat eraiki, operako pertsonaia miniaturan egin eta antzezpena egin ahal izateko, proposatuko dugu aria eta errezitatio pasarte txikiak ikas ditzaten.

Gela bost lagunek osatutako bost taldetan banatuko dugu, beraz, talde bakoitzean operako bost pertsonaia egongo dira eta antzokitxoan antzezpeneko elkarrizketa ezberdinak egin ahal izango dituzte.

Ikusmen eta plastika arloekiko lotura

Operako bost pertsonaiak aurkeztuko ditugu eta XVII. mendeko jantzien ezaugarri bereizgarriak komentatuko ditugu. Bakoitzaren xehetasunei erreparatuko diegu. Giza gorputzaren neurrien azterketa egingo dugu.

Pertsonaiak egiteko talde guztiak errespetatu beharko dituzte, horretarako aurretik ezarritako neurri batzuk pentsatu beharko ditugu: hogeit hamar zentimetro garaieran. Neurri horrek pertsonaiak antzokitxo barruan mugitu ahal izatea ahalbidetzen du. Figurak bakoitzaren atzean itsatsitako alanbre baten bidez mugituko ditugu.

Hizkuntzarekiko lotura

Operako lau pasarte elkarrizketa txiki bihurtu ditugu. ([Ataza didaktikoak/Operako elkarrizketak](#)), bertan pertsonaiak agertzen dira istorioko zatiak aurkezten, Miquel Desclolek *Sevillako Superbizargina* operarako egokituta. Antzezpenak zati abestuetan eta errezitatuak ditu. Gelan egin ditugun bost taldeetarako bakoitzak buruz ikasteko eta antzokitxoan antzezteko bizpahiru elkarrizketa aukera ditzake.

Jabetu beharra dago hitz egindako pasarteek ez dutela errimarik, eza asmo poetikorik, baizik eta istorio bateko argumentu ehunaren zati direla. Abesturiko zatiek bertsogintza eta koherentzia metrikoa jarraitzen dute. Lehenak errezitatiboak dira eta bigarrenak arietako pasarteak. Aria eta errezitatibo arteko bereizketa elkarrizketa bakoitzean islatuta ikusi ahal izango da.

Errezitatiboa	Aria
Testua askea da, motzagoa edo luzeagoa izan daiteke.	Bertsoa erregularra da, ezagutzeko moduko erritmo etengabea du.
Testua eguneroko hizketaldiaren antzekoa da.	Testua gehiago hurbiltzen zaio poesiari eguneroko hizketaldiari baino.
Testua gertakizunarekin lotuta dago, dirauen bitartean; pertsonaiek gertakizunak aurrera egin ahala eboluzionatzen dute.	Ez dago gertakizunik. Pertsonaiak denbora dauka bere aldartea adierazteko.
Gertakizunean galderak eta erantzunak daude; denbora aurrera doa.	Denbora etenda geratzen da.
Garrantzia hitzari eta gertakizunari ematen zaie.	Garrantzia musikari eta sentimenduei ematen zaie.

Proposamena egindako pertsonaiekin antzezpen-giroa sortzean datza, horiek antzokitxoan zehar mugituko dira, operan bezala, errezitatzen eta abesten.

Antzezpenak bideoan grabatzea proposatzen dugu, emaitzak ebaluatu eta ikasleengandik ahalik eta exijentziarik handiena lortu ahal izateko.

5.1. 1. elkarrizketa (Kondea, Figaro eta Rosina)

Figaroren aria

(Aria abestu. Ikus: partitura)

Kondea.- Bera da edo oker nabil?
Bada, zalantzarik gabe, Figaro!

Figaro.- O, zer ari naiz ikusten. Berorren Gorentasuna.
Eta zer zabilta Sevillatik?

K.- Azalduko dizut.
Neskatila batekin maiteminduta nago,
duela gutxi hemen ezarri zen
sendagile zahar ezagun baten alabarekin.

F.- Neskatila ez da sendagilearen alaba,
haren ardurapekoa baino ez da!

(Leihoa irekitzen da, Rosinak kondeak irakurtzen duen gutun bat erortzen uzten du)

K.- A, ikusi nahi nau, antza.

F.- Beste baten plantak egin zenitzake.

K.- Beste baten plantak?

F.- Maitemindu gizajo bat: Lindoro...
Hain zuzen badut abestitxo bat
leihoetan neskak maitemintzeko...
Eta oso merke.

K.- Ondo da, proba dezagun.

Almaviva Kondearen canzonea

(Ikus partitura)

Rosina.- Jarraitu, o, jarraitu, akitu barik.

K.- O, zein pozik nagoen!

F.- Bada, aurrera!

5.2. 2. elkarrizketa (Bartolo, Basilio, Rosina eta Figaro)

Rosinaren aria

(Ikus partitura)

Figaro.- Zer moduz, andereño?

Rosina.- Egun on, Figaro jauna.

F.- Eta, zelan doa?

R.- Gogaituta nago.

F.- Ai ama! Baliteke?
Neskatila eder eta azkarra.

R.- Kar, kar!
Barregura ematen dit. Zertarako balio dit azkarra izateak
beti hemen banago, hilobian bezala?

F.- Kontuz, badatoz-eta!

R.- Bartolo Jauna da, nire tutorea.

Bartolo.- Bai, On Basilio.
Nik indarrez edo maitasunez
bihar bertan Rosinarekin ezkondu nahi dut.
Argi eta garbi dago?

Basilio.- Erabaki zuhurra.
Hain zuzen, ohartarazi nahi dizut
Almaviva kondea iritsi dela.

Bar.- Almaviva?
Urrezko ezkongabea?
O, arraioa! Erremedioa jarri beharko.

Bas.- Horrela dohain finaz,
orain hasiko gara
txepelkeriak asmatzen,
osperik txarrena ekarriko diotenak,
errairik gabeko morroi miserablearena...

Basilioren "Gezur beltza" aria
(Ikus partitura)

5.3. 3. elkarrizketa (Rosina, Bartolo eta Almaviva)

Bar.- Zer diozu hatz honi buruz
Tintaz hain zikina?

R.- Tinta? O, deus ez, erre egin nintzen
eta tintarekin, bada.... sendatu egin dut.

Bar.- Arranopola!
Eta orri hauek... orain bost daude, sei zeuden.

R.- Zein orri? A, egia da:
bat erabili dut...
musikariei gozokiak bidaltzeko.

Bar.- Jainkoarren! Ixo!

Bartoloren aria
(Ikus partitura)

Bar.- Rosina bere gelan giltzapetuta
nik nahi arte egongo da.
(*Rosina badoa haserre*)

K.- (*Soldaduz mozorrotuta, balantzaka*)
Aizu, etxe hori! Jende ona!
Aizu! Ez al dago inor?

Bar.- Nor da hori? Hori itxura kaskarra!
Eta mozkortuta! Nor izango ote da?

K.- Aizu, etxe hori! Jende ona!
Aizu! Ez al dago inor?

Bar.- Eta orain horrek zer nahi ote du?

K.- Zu zinateke...? Egon apur batean.
Zu zinateke Kaiku doktorea?

Bar.- Zer Kaiku eta zer Kaiku ondoko!

K.- A, a, Sasikumea.

Bar.- Zer Sasikume ondoko!
Zoaz Infernura!
Bartolo Doktorea.

K.- Barbaro Doktorea, primeran.

5.4. 4. elkarrizketa (Figaro, Bartolo, Kondea, Rosina eta Basilio)

F.- Bizarra egitera natorkizu. Gaur duzu txanda

Bar.- Gaur? A, bai!

F.- Ai, ai, ai!

Bar.- Zer da orain?

F.- Zerbait begian!
begiratu... eskurik gabe..
egin putz, arren!

K.- Gauerdi puntuan
etorriko gara zure bila...

Bar.- Arloteak, alprojak!
Kanpora zitalok,
akabatu nahi zaituztet-eta!
Ohitura txarra duzue
ni leherraraztekoa!

R., K., F.- Ixo, ixo,
edo ito egingo zara!
Ixo edo barregarri geratuko zara.
Agurea eldarniatzen ari da,
burua biraka...

Bar.- (*Oihuka*) Basilio! Notario!

(Irtetean, On Basilioarekin topo egiten du, itzultzen ari zena)

Bar.- Ustekabea, On Basilio:
hark iruzur egiten zigun,
iruzurtia da, eta ez Alonso Jauna.

Bas.- Bada, hori azal lodia!
Eta nola deitzen zaituzte?

R.- Aski da! Entzun.
Alonso Jaun ona
Lindoro da.

K.- Lindoro?
Gezur ezta, hau gozamina!
Ez naiz ni Lindoro,
Almaviva naiz!

F.- Bada, zer, Bartolo Jauna?

Bar.- Ez dago beste irtenbiderik.
Zoazte, bada, ongi. Zeruak bedeinka zaitzatela.

F.- Gora, gora, besarkada bat.

R.- A, hau poza!

K.- O, zorioneko istorioa!

Finale II
(Ikus partitura)

6. Ordenatu itzazu deiak

Bost pertsonaietarikoa bakoitzak bere sentimenduak adierazten ditu. Asmatu behar da bakoitzari zein dei dagokion.

- Ziur egon nahi dut neu maite nauela, ez nire aberastasuna. (Almaviva)
- Nik indarrez edo maitasunez bihar bertan Rosinarekin ezkondu nahi dut (Bartolo)
- Salba nazazu, arren, tutore maltzur honengandik! (Rosina)
- Begira nire talentuak zein burutazio prestatu berri dituen. (Figaro)
- Hildakoa ematen dut, ala? (Basilio)

7. Nori dagokio elkarrizketa bakoitza?

Aurkezten dizkizuegun elkarrizketak *Sevillako Superbizargina* operako Miquel Descloten testutik aterata daude. Ikasleriak protagonistak zein pertsonaia diren asmatu behar du.

1. ELKARRIZKETA

- Beste baten plantak egin zenitzake.
- Beste baten plantak?
- Maitemindu gizajo bat: Lindoro...
- Hain zuzen, badaukat neskak leihoetan maitemintzeko abesti bat... eta oso merke.
- Bada, ondo, proba dezagun.

Pertsonaiak dira:

2. ELKARRIZKETA

- Nik indarrez edo maitasunez bihar bertan Rosinarekin ezkondu nahi dut bihar bertan Rosinarekin ezkondu nahi dut. Argi eta garbi dago?
- Erabaki zuhurra. Hain zuzen, Almaviva Kondea iritsi dela ohartarazi nahi dizut.
- Urrezko ezkongabea?
- O arraioa! Erremedioa jarri beharko.
- Horrela dohain finaz, orain hasiko gara txepelkeriak asmatzen, osperik txarrena ekarriko diotenak, errairik gabeko morroi miserablearena...

Pertsonaiak dira:

3. ELKARRIZKETA

- Zer diozu tintaz hain zikin dagoen hatz honi buruz?

- Tinta? O, deus ez, erre egin naiz eta tintarekin, bada... sendatu egin dut.

- Arranopola! Eta orri hauek... orain bost daude, sei zeuden.

- Zein orri? A, egia da: bat erabili dut... musikariei gozokiak bidaltzeko.

Pertsonaiak dira:

ERANTZUNAK:

- 1. elkarrizketa: Almaviva Kondea eta Figaro
- 2. elkarrizketa: On Basilio eta Bartolo Jauna
- 3. elkarrizketa: Rosina eta Bartolo Jauna

8. Rosinak amodiozko gutunak idazten ditu

Rosina da antzezpenean Lindoro maiteari maitasunezko ohar bat eta gutun bat idazten dizkion pertsonaia. Ikasle bakoitzak, istorioko pertsonaia baten papera hartuta, gutun bat idaztea eta gelako kideren bati zuzentzea proposatzen dugu, ondoren jasotzaileak igorlea operako zein pertsonaia den asmatu dezan.

Adibide gisa, balio diezazueke:

Erroman, 1816ko otsailaren 21ean

Ana maitea:

Atzo, iluntzean, *Il barbiere di Siviglia* opera estreinatu genuen Erromako Argentina antzokian. Egun gutxi izan genituen entseatzeko. Abeslari eta musikariok dena ondo ateratzea espero genuen. Badakizu oroimen ona dudala testuak eta musika gogoratzeko, baina ezinezkoa zitzaidan hain denbora gutxian egitea.

Antzezpenerari ekiteko agertokira igo bezain laster, dena zorigaitzak izan ziren. Rosinari serenata abesten genion bitartean, gitarraren soketariko bat hautsi zen. Publikoa barrez hasi zen eta nik ahal izan nuen guztia egin nuen abestia bukatzeko.

Ez dakit nondik, baina une bat beranduago katu beltz bat agertu zen agertokian, eta publikoak ez zuen gustuko izan... Badakizu, beltza augurio txarren seinale da. Zorte txarra ekartzen du! Basilio nire laguna lurrera erori zen "*Gezur beltza*" aria abesten zuen bitartean eta sudurra txikitu zuen.

Ez zegoen egun bakarrean zoritxar gehiago izaterik. Espero dugu bihartik aurrera antzezpenak hobeak izatea.

Musuak eta laster arte.

Era berean, Lizeoko Antzoki Handiak ekoizturiko ikuskizunaren antzezpenean entzun ditugun abeslari batzuei bidal geniezaieke gutun bat.

Adibidez:

Hiriberrin, 2004ko otsailaren 10ean

Bartolo agurgarria:

Nire gela osoa antzokira joan da *Sevillako Superbizargina* opera entzun eta ikustera. Banekien ez nintzela aspertuko, behin beste opera bat ikustera joan nintzelako eta asko gustatu zitzaidalako.

Figaro, Rosina eta Almaviva Kondea izan dira gehien gustatu zaizkidan pertsonaiak. Zuk ondo abestu duzu, baina ez zaitut batere gustuko izan, agure jeloskor eta kexatia baitzara. Ez dut ulertzen nola behartu dezakezun hain neskatila gaztea zurekin indarrez ezkontzera.

Tricicleren muntaia atsegina iruditu zait. Jantziak garaikoak ziren, ezbairik gabe deserosoak gure pilota jokoetan soinean eraman beharko bagenu.

Musika eta plastika irakasleek antzokitxo bat eraikitzea proposatu digute, guk sorturiko pertsonaiekin opera antzezten saiatzeko. Denoi iruditu zaigu ideia aparta. Nire pertsonaia hautatu ahal izateko aukera badut, Figaro margotuko dut.

Antzeztu bitartean irakasleak argazki digitalak egingo dizkigu; batzuk ikastetxeko web-gunean jarriko ditugu.

Agur eta laster arte.

Ramon Escalante

9. Lau ahotsetarako kontzertantea

Musikak instrumentu edota pertsona bat baino gehiago aldi berean adieraztea ahalbidetzen du, elkarri ulertzeko aukerarekin. Benetako bizimoduan, gela batean, esaterako, aldi berean hitz egiten ari diren ahots ezberdinak bata bestearen gainean jarriz gero, ondo ulertzea ezinezkoa bihurtuko duen kutsadura akustikoa sortuko dugu. Musikan, aldiz, ahots bat baino gehiago sartzeak harmonia, erritmoa eta bizitasuna sor ditzake. Opera batean sendotu egiten du ikuskizuna, eta horrela deitzen diogu: kontzertantea.

Proposatu ikasleriari kontzertante bat egitea, Rossiniren operan ikusi eta entzun duten bezalakoa. Ekarri gogora pertsonaiek aldi berean abesten duten unea –ia operaren bukaeran, On Basilio sartu eta gaixo dagoela sinestarazten diotenean-. Ustekabeko egoeraren aurrean sortzen den kalapita eta pertsonaia bakoitzak adierazitako esaldi

ezberdinen korapiloak kontzertantea eskaintzen digu, opera komikoetako ohiko osagaia.

Beharrezkoa da ikasleria antzeko egoera batean jartzea eta *Superbizargina* operako pertsonaien ahotan jartzeko erritmoz beteriko esaldiak sortzen laguntzea ([Ataza didaktikoa /Lau ahotsetarako kontzertantearen partitura](#)).

Era berean, beste testuinguru batean kokaturiko egoera berri batetik abiatuta kontzertante bat sortu ahal izango da, esate baterako: gelan, jangelan, jolastokian,...

Esaldiek egitura berdina izan behar dute –zortzi pultsazio, esaterako- gelako guztiek batera adierazi ahal izateko. Erritmoa eman ahala, idatzi arbelean eta aldatu, beharrezkoa izanez gero. Bukatzeko, talde bakoitza pertsonaia bat antzezteaz arduratuko da. Euren papera antzetzu dezaten errazteko, ahots aldaketa berriak eta gorputz-mugimendu dibertsifikatuak aurkitu beharko dira.

10. Doinuak marraztu eta ezagutu egiten ditut

Proposamena da operako aria batzuen doinu-profila marraztea eta musika-nota eta figura bihurtzea, horrela aria eta pasarte bakoitza abesten duen ahotsa ezagutu ahal izateko.

Pasarteak:

1.- On Basilioren *Gezur beltzaren* hasierako aria



2.- Lindororen bigarren Serenataren pasarte



3.- Rosinaren aria *Kristala bezalako ahotsa* (hasiera)



4.- Figaroren *Eman bidea hiriko factotumari* ariaren pasarte



Abestu ezazue lau doinu pasarteetariko bakoitza eta taldeak airean marraztu ditzala. Ondoren, banaka, doinu-lerroa orri batean margotuko dute. Esleitu iezaiozue ariaren pasarte bakoitzari silaba ezberdin bat (dum - dum; tam - tam; flum - flum; plam – plam,...). Egin itzazue arbelean doinu-irudi zuzenak eta jarri zenbakiak. Lau arietan landuriko pasarteak *Il barbiere di Siviglia* operaren grabaketa batean ezagutzea besterik ez da faltako. Nabarmendu egingo da irakaslearen ahotsarekin abesturiko doinu-lerroaren –silaba ezagunetatik abiatuta- eta orkestrak lagunduriko ahots profesionalarekin abesturikoaren arteko aldea. Atsegina suertatuko zaigu gela guztiaren artean irudikatu dugun irudia doinu ederra bihurtu dela egiaztatzea.

Ondorengo lan saio batean lau musika-pasarteen partitura emango diegu eta abesten dituen ahotsaren tesitura asmatzen saiatuko dira. Era berean, ariaren izenburua idatziko dute.

11. Orff estiloko obertura jotzen dugu

Orff instrumentuek musika-pasarteak batera eta eraginkortasunez jotzea ahalbidetzen dute. Ariketa bezala Rossiniren obeturako abestietariko bat abestea proposatzen dugu, ikasleek abestu eta barneratu dezaten. ([Entzuteko unekak/ Partiturak](#))

12. "Kristala bezalako ahotsa"






Abestu ahal izateko prestakuntza espezializatua eta ahots-gaitasun zehatzak behar dira. Opera abestu ahal izateko, aparteko ahots-ozentasuna edukitzeaz gain, abeslariak agertokitik aktoreek bezala mugitzen jakin behar dute esleitzen zaien papera jokatzeko dutenean.

Ahotsaren garaierak eta tinbreak ahots-sailkapenak zehazten dituzte, sexuaren arabera. Altutik baxura, emakumezkoen ahotsa izan daiteke: sopranoa, mezzosopranoa eta kontraltoa. Gizonezkoena, berriz: tenorra, baritonoa eta baxua.

Rossiniren garaian opera oso ikuskizun ospetsua zen, guretzat zinea den modukoa. Ikuskizunetan agertzen ziren ahotsak publikoak ezagutzen zuen rol dramatikoak izan ohi zuten. Horrela:

Ahots-erregistroa	Rol dramatikoa
sopranoa	Maiteminduta dagoen emakume gaztea; maitasunaren izenean bere bizitza ematera irits daiteke. Bere jarrera positiboa da eta bere ahotsa distiratsua.
mezzo-sopranoa	Emakume helduagoa. Sopranoaren arerioa izan ohi da.
kontraltoa	Ama, emakume apaiza, atsoa,...
tenorra	Maitale gazte, zintzo eta ahots distiratsukoa. Heroi adoretu eta positiboa.
baritonoa	Energiaz beteriko gizona, burutsua eta heldua... Tenorraren arerioa ere izan daiteke.
baxua	Aita, aztia, apaiza,... adineko pertsonaia lasaia. Pertsonaia komikoa (<i>basso buffo</i>).

Sevillako Superbizargina operan entzungo ditugun ahotsen tesiturak ahots-erregistro hau du:

					Sopranoa
				Mezzo-sopranoa	
		Tenorra	Kontraltoa		
		Baritonoa			
Baxua					
Gizonezkoen ahotsak			Emakumezkoen ahotsak		

13. Bizargin baten zopa

Bilatu hizki-zopan *Sevillako Superbizargina* operako protagonisten izenak eta haiekin batera agertu diren musika-instrumentu ezberdinena:

B	Q	W	E	R	T	Y	P	U	I
S	A	A	L	M	A	V	I	V	A
D	F	S	G	N	H	B	A	J	K
Z	X	C	I	V	B	A	N	N	M
P	O	S	I	L	T	R	O	Y	T
R	O	R	E	U	I	T	A	Q	A
R	G	H	A	H	J	O	K	L	Ñ
F	D	L	S	A	Z	L	X	C	V
L	F	I	G	A	R	O	M	N	B
U	X	A	B	A	R	T	N	O	K

14. Miquel Descloren testuaren aberastasuna

Bizarginaren ogibideak

Beharrezkoa izango da ikasleei obran agertzen diren zenbait aspektu historiko anakroniko argitzea. *Superbizarginaren* lanbide rol aniztasunak –maitasunezko abestietako letraxoen saltzaile ere-, zerikusi gutxi dauka egungo ile-apaintzaile lanbidearekin.

"Egia. Hor barruan
ni bizargina, botikaria naiz,
haginlari txarra, al baitaria,...
txoriburu buruzagia!"

(Figaro)

Hona hemen bizarginaren figurari buruzko atsotitz-sorta bat, bere esanahian ikuspegi tradizioaletik sakondu nahi izanez gero.

- Bizarginaren trebetasuna da ilerik ez dagoen tokian patilla uztea. (Ezinezkoa ere egiten dute)
- Bizarginaren mihia, zorrotza eta ebakitzailea. (Iruzingileak, iraintzaileak...)
- Lastoa lastategira eta bizargina bizarra egitera. (Bakoitza bere lekuan)
- Bizargina, eroa edo kalakaria. (Ahoberoak)
- Txarto dago etxeoandrea, bizargin bila badabil. (Muturreko egoera batean baino ez da bizarginarengana jotzen)
- Zapataria, jostuna eta bizargina, hirurak ezberdinak eta denak gezurrezko. (Edozeinek egiten zituen lanbideak ditu hizpide)

Lexiko zaila

factotum	odol-ateratze	kaiku	eldarnio
botikari	txoriburu	eramaile	babespeko
bizkor	sordina	ostatu eman	gezur beltz
amarru	prospektu	ergel	haginlari txar
imintzio	sasikume	fanfarre	ospetsu

Harridura-esakuneak

Hau nahigabea!	Arranopola!	Bai ideia ospetsua!
Ea bada, tira!	Aurrera!	O, arraioa!
Agure gordin nazkagarria!	O, hau zuhur madarikatua!	Bo, adorea!
Hau lotsa!	Hau maleziaren maistra!	Kontxo, hau lotsa!
Jainkoarren! Ixo!	Halako iruzurrik!	Egoskorra!
Jainkoaren izenean!	Hau sasikumea!	Bai zera!
A zer nolako txantxa!	Zelako korapiloa!	A, hau patu ankerra!

Esamoldeak

Tximista bezain azkarra izan	Isilean etorri
Urrea diamantearekin, zoria zure alde.	Urrea erruz eduki
Bete-betea asmatu	Gobernatzen zaila izan
Nazkak akabatu	Urrezko ezkongabea izan
Txorakeriak asmatu	Errairik gabeko morroia izan
Limurtzen utzi	Astakeria bat egin
Erraztasun handia eduki	Txoratuta egon

Metaforak

Testuan zehar osagai metaforiko ugari aurki daitezke. Adibidez:

"Urrezkoaren ideia aurrean,
miragarria, nonahikoa,
dagoeneko Vesubioa da nire burua
eta botaka hasten da"
(Figaro)

Ezbairik gabe, Miquel Descloten testuko pasarte metaforiko aberatsenatariko bat "*Gezur beltza*" ariako edukikoa da. Bide eman dezake DBHko ikasleekin testu-iruzkina egiteko.

Gezur beltza haize leuna da,
haize leun sotil eta fina,
katuaren antzeko eta ezkutuko
nahasgarri egiten dena,
marmarka arituta.
Pixkanaka, uluka,
isilpean, xuxurlatuz,
belarriak trebetasunez
eta buruak zalutasunez
ezin gehiago gortzen ditu.
Ahotik ateratzean,
burrunba erotu egiten da,
pixkanaka sendotzen da,
zoroa bezala sumindu,
ekaitz-trumoia da,
beldurrez dardarazten duena.
Eta bat-batean, azkenik,
lehertu egiten da,
hedatuta eta areagotuta,
Eta burrunbatzarra sortzen du
kanoi baten danba! bezalakoa,
salbuespenezko zarata,
astindu ikaragarria,
airea burrunbarazten duena.
Eta kalumniaturiko morroia,
iraindua eta laidotua,
mespretxu publikoan
puxika bezala lehertuko da.

Amodioaren literatura-topikoa

AMODIOA=PASIOA=SUA

"Maitasun eztiaren
garra sentitzen dut,
bozkario-seinalea
eta pozarena,
ona eta egokia,
nigana dator.
Ezohiko garrak
arima hau pizten du
eta nire poza
handiagoa izango da"

(Almaviva Kondea)